

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 1ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren). Halaber, argitara ematen da gaztelaniaren ezagutza-proba egin behar duten izangaien zerrenda ere

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez (2019ko martxoaren 7ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deialdia egin zen.

Eskabideak betetzeko epea amaitu ondoren, aipatutako deialdiak 4. oinarrian xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren).

2. artikulua.- Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazte aldera, Hezkuntza Saileko Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) - «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> - «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

3. artikulua.- Onartzea gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko proba egin behar duten izangaien behin-behineko zerrenda.

Aipatutako behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazte aldera, Hezkuntza Saileko Interneteko helbide hauetan argitaratuko da:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) - «Berriak: Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> - «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Aurreko probak» - «Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea».

4. artikulua.- Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren gainerako betekizunak beteta dituztela aitortzen zaienik. Izangai hautatuek 11. oinarrian xedatutakoari jarraikiz aurkeztu behar dituzten agiriak aztertuta

egiaztatzen bada interesdunen batek betekizunen bat betetzen ez duela, prozedura honetan parte hartzeak eman ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu ukitutako pertsonak.

5. artikulua.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen honen aurka, hamar egun balioduneko epean, ebazpena argitara eman eta biharamunetik hasita, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango dute zerrendatik kanpo uztea eragin duen akatsa. Halaber, datu pertsonaletan akatsak atzeman dituzten izangaiek akatsak daudela adierazteko aukera izango dute epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 1a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.